



## ZORIONAK

### I. Gogo-landefen zori ona, zeru-jaurefia euren dabe-ta.

Egun baten Josu, giza-talde andia ondorik ebala mendira igonda, bedar eze ganean jafi zan. Giza-taldeak be beste ainbeste egin eban. Goyan ortzi garbia; begipean ikuspegi edefa. Otoi-are ezin ohea. Kisto, ba, bere jaungoikozko aoa edegi ta irakasten asi zan. Eta ona lenen zer diñoan: «Gogo-landefaren zoriona, zeru-jaurefia euren dabe-ta». Mat, V, 3.

Aintziña etzan aintzakotzat artzen txirotasuna. Jaungoiko asafearen eskuak bialdutako zigortzat esten zan; efiaren aufean obendari zan, txiro zana. Eta sasi-jainkoak gurtzen ebezanen artean bakarik etzan, Lege Zafeko efi Jaunak autuan be, begi okefez begirutzen yakon txiro, lander edo ez-eukiari.

Zer dala-ta dirausku, ba, Kisto'k: Gogo-landefen zoriona? Betikoak emon eutson agindua betetan jatsi zan lufera: gizartea bafiztuten etofen. Bera dogu zeru lufen Egile ta beraz gizonaren jaube, ta txarto egoana bafiztuten datorkigu. Bari Onean —Jesukristo'k ofelaxe gura dabelako —, txiroak goretsiak, aberatsak ostera apalduak dira. Txirotasuna zorion-itufi. Txiroai au diñotse: Zuen zori ona, gogo landefofeina, zeru-jaurefia zeuena dozue-ta. Ludian altsu, afo, zeken eta aberats diranei, bafiz, au dirautse: Zuen zoritxara, aberatsok, zeuen atsaldia onezkero ba-dozue-ta». Luka, VI, 24.

Kisto baño txiroago nor? Txiro jayo zan, Betlen'go estalpean; gizon gitxiri uts-emoten dautso. jayotorduan, oe batek; Josu'k, ostera, orixe bere ez, ainbarik geratu zan. Aur-soin-bil-euntzat lastoa ta berogafitzat abere-arnasa baño ez eban izan. «Azeriak oatsea dabe ta eguratseko egaztiak abia ba-dabe; Gizasemeak, ostera, ez dau burua non ezafi», diñosku Berberak. (Mat., VIII, 20). Bizitz osoan txiro, gaba emoteko be aterperik ez ebala, ta azkenik gurutza latza izan bere il-oge. Zeru-lufen bitartean jasotako abe lotsagafi baten, biloxik, il zan. Txiroak goragoko malara jasoteko jatsi zan lufera; ta, Paul bialduak dirauskunez, zeru-lufen jaube izanik be, txirotasunaz ezkondu zan, bere txirotasunez gu aberasteafen.

Artez diño, ba, mendi-tontofean jafirrik: Zori onekuak zuok gogo-landerok, gogoz txiro zarienok. Eta nor da gogoz txiro edo lander? Ogasunik baga, ezetariko ogasunik eztabela, ez-eukian bizi diranak? Mundu onetan ogasun-jaube ez izan afen, ba-leiteke, zeruan zoriontsu ez izatea. Egizko txiroak, apalako txikiak, biotza ogasun-lakio edo matazan nastauta eztaukienak: aberats izan afen, txiro antzera bizi diranak, aberastasunak Jainko legeaz erabilten dakiedak, beekoai eskua luzatzen dautsienak; onexek dira Jesukristo'k goraltzen dabezanak, onespen eta goitiko atsegin itxaropenez azkortzen dabezanak.

## IL DIRANAK



Oviedo'n Ufila'ren 10'an Eupartsi Aba, 57 urtegeaz.

Irakurleak ondo dakiez Asturias aldean matxiñadea joan diranak egin dabezan iriskantzak eta ilte izugafiak; 54 eleiz-gizon il dabez eta eriotzarik gogofenagaz. Il dabezanetatik bat Eupartzi Aba, Karmeldara. Oviedo'ko Nagusia izan zan da. Bizitzan oso ona, apala ta biotz onekoa izan zan, eta eriotzan be biotz on ori agertu dau. Tiroak emongo eutsiezanean, besoak zabaldu ta ilgo ebenai esan eutsen: «Maite zaituet eta parkatzen dautzuet» eta ilda lufera jausi zan.

Ipiña'n (Zeanuri'n) Ufila'ren 19'an Odriozola'tar Eramona, 88 urtegeaz; Kristiñauen bizitza onaren ondoren, biotz on eta arima garbien eriotzeaz eroan dau Karmen'go Amak. Bere ile-tara zazpi Karmeldar, ta abade ta jente asko batu ziran; bere sendiari, betezbere bere seme dan Begoña'ko Karmeldaren Nagusi Aita Martini samintasunean laguntzen dautsague, ta irakurleai otoitz bat daskatsague Eramona'ren gogo alde.

G. B.

